

**MEMORIAREN EGUNA / DÍA DE LA MEMORIA**

2016-11-10 Vitoria-Gasteiz 10-11-2016

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, Gogora Institutuko kideok, jaun andreok, arratsalde on.

Azaroaren 10, Memoriaren Eguna Euskadin. Memoria Eguneko oroimen-ekitaldi hau, Memoriari buruzko politika publikoaren barruan dago; euskal erakundeek garatzen baitute, herritarrekin partekatuta. Politika publiko horrek zentzu politiko, sozial eta pedagogiko sakona du.

Zabalik ditugu besoak:

- biktimentzat, gertaturikoa gogoratzeko, pairatu zuten injustizia bidegabea aitortzeko eta gure elkartasun-adierazpena berritzeko.
- gizartearentzat, errepikatu behar ez den iragan baten gaineko hausnarketa kritikoa sustatzeko eta elkarrizketa plurala proposatzeko.

Este Día de la Memoria se inscribe en la política pública de memoria que las instituciones compartimos con la ciudadanía. El Día de la Memoria simboliza y concentra en una jornada el esfuerzo por compartir y expresar:

- la solidaridad hacia todas las víctimas, reconociendo que el sufrimiento que se les causó nunca debió producirse;
- el compromiso con los derechos de verdad, justicia y reparación;
- la oposición frontal a la reedición de toda expresión de terrorismo o violencia sufrida en el pasado fundamentada en el rechazo a la vulneración de los derechos humanos o su justificación.

El Día de la Memoria abrimos nuestros dos brazos:

- a las víctimas, para recordar y reconocer la injusticia que padecieron y renovar nuestra solidaridad.
- a la sociedad, para promover una reflexión crítica sobre un pasado que no debe repetirse y proponer un diálogo plural de cara al futuro.

La política pública de memoria pone en común un análisis crítico sobre el pasado con una voluntad constructiva de convivencia en el presente y el futuro. Su marco de referencia es el compromiso con el pluralismo, los principios democráticos y los derechos humanos. Este compromiso sirve para promover las transformaciones sociales, también para asentar la cohesión y la convivencia.

Gaur gogoratzen eta ohoratzen ditugu bakearen, bizikidetzaren eta demokraziaren alde borrokatu ziren guztiak. Baldintza edo inguruabar txarrenetan ere, balio demokratikoen defentsan ahalegindu zirenak. Pazientziaz jardun zuten, ekinaren ekinez, nekaezin, bide soil-soilik demokratikoen alde. Gehien-gehienek anonimaturik adierazi zuten euren konpromisoa, inongo aintzatespenik gabe. Oroimen-ekitaldi hau eskaintzen diegu. Memoria da gogoratzea errepikatu behar ez dena, bai eta gogoratzeko modukoa dena ere, balio pedagogikoa duelako.

La memoria es recordar aquello que no debe repetirse y aquello que merece ser recordado porque tiene un valor pedagógico como modelo o ejemplo. Hacer memoria crítica del pasado es recordar el sufrimiento y la injusticia padecida. Es actualizar aquello que merece ser destacado por su valor positivo.

Este es el caso de todas aquellas personas que se comprometieron con la paz, la convivencia y la democracia. Personas que, en las circunstancias más adversas, pugnaron por defender los valores democráticos. Lo hicieron con paciencia y perseverancia. La inmensa mayoría de estas personas expresaron su compromiso desde el anonimato, sin ningún tipo de reconocimiento o protagonismo. Fueron personas visionarias que, entre las tinieblas de la violencia, asumieron el valor del compromiso. Entendieron que su deber era defender la paz, la justicia, la libertad y la democracia precisamente con esas mismas armas de la paz, la justicia, la libertad y la democracia.

Gaur gogoratzen ditugu bakearen alde ahalegina egin zuten pertsona guztiak. Balio demokratikoen defentsan ahalegindu ziren, inongo protagonismorik gabe. Gaur, aitortpen berezia egin nahi diegu bakearen aldeko langile anonimo guztiei. Haien lanari zor diegu, neurri handi batean, gaur daukaguna eta gaur lortu duguna.

Gaurko eta etorkizunerako daukagun konpromisoa da haien eredua ez ahaztea, haien eredua aplikatzea. Horrek esan nahi du lanean jarraitu behar dugula biktimen aintzatespenaren alde. Biktimek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidearen alde. Haien eredua aplikatzea esan nahi du gogoan hartu

behar dugula iraganaren memoria kritikoa funtsezko zeregina dela orainari eta etorkizunari begira.

Hoy no podemos dejar de mirar al Mediterráneo. A la realidad de las guerras, las personas refugiadas y las migraciones. Desde el Mediterráneo escuchamos un grito desesperado de las entrañas de la humanidad y la condición humana.

Este Día de recuerdo y homenaje a las víctimas, nos comprometemos también con las necesidades emergentes de la paz, la convivencia y los derechos humanos.

Debemos seguir trabajando, dando continuidad al ejemplo de las personas anónimas comprometidas con la paz. Trabajando juntos por el reconocimiento, los derechos de las víctimas a la verdad, la justicia y la reparación.

Este es el mejor homenaje que podemos tributar a las personas anónimas que trabajaron por la paz en Euskadi a quienes recordamos y queremos honrar. Su ejemplo, la experiencia de nuestra historia, nuestra memoria, debe ser herramienta de solidaridad activa y efectiva en la actualidad.

Eskerrik asko GOGORA Institutuari. Egunero gogora ekartzen dituzue biktimak. Gaur, bereziki, gizarte osoari gogorazi nahi diogu Gogora Institutuak egunero laguntzen digula biktimak gogoan hartzen.

Eskerrik asko Gogora, eskerrik asko guztioi.